

BEZEROEKIKO HARREMANA

Bezeroarekin izango dugun harremana hasieratik adieraztea beharrezkoa iruditzen zaigu elkarren arteko kontaktua ahalik eta egokiena izatera iristeko. Horregatik, gure bezero nagusiekin, hots, udaletxearekin harreman pertsonala eskainia edukiko dugu, hau da, arazoren bat izanda pertsonalki entzungo genieke beraien zalantzei.

Harreman horiek eragin handia dute bezeroak enpresarekin daukan esperientziarengan; bezeroek baloratzen dute jaso duten tratua eta horiek garrantzia



daukate bezero berriak lortzeko. Ondorioz, takila erosi eta bost urtetik behin, guk ordainduko diegu takilaren mantenua urte batez. Uste dugu horrela, takilen erabilera bermatuko dela eta urte gehiagoz mantenduko dugula harremana bezeroekin; gure asmoa baita udaletxeak bezero bezala eustea eta ondoren salmenta kopurua handitzen saiatzea.

Gure produktua erabiliko duten herritarrekin ez dugu harreman zuzen eta pertsonalik izango, hau da, autozerbitzua izango da. Takilen makinan laguntza gida bat egongo da arazo bat izanez gero hor begiratu ahalko dena. Arazoa ezin izango balitz horrela konpondu, gure enpresaren telefono zenbakia emango diegu, eta gutako norbaitek hartuko du. Gurekin harremanetan jartzeko behar diren datuak ere gure web orrian egongo dira eskuragarri nahi izanda.

Gure produktuak pertsonalizatzeko aukera izango du. Koloreaz gain, herriko monumentu, pertsonaia, gune edo ekintza garrantzitsuren baten argazkia edo gure bezeroek nahi duten marrazkia jartzeko aukera egongo da, takila bakoitzean dagokion herriko edo enpresako logoaren pegatina bat jartzeko aukera dago, bezeroak nahi izanda. Honez gain, takila desberdinak jartzeko egongo da, hau da, takila handiak, takila txikiak eta mugikorrek kargatzeko egongo dira.